

1. SARRERA

Klima-aldaketa XXI. mendeko erronka nagusietako bat da, eta haren ondorioak gero eta nabarmenagoak dira mundu osoan, bereziki muturreko fenomeno meteorologikoen areagotzearen bidez. **Tenperatura** maximoen igoerak, **bero-boladen** iraupen, maiztasun eta intentsitate handiagoak, eta gaueko gutxieneko tenperaturen gorakadak osasun publikoan, ongizate sozialean eta hiri-inguruneen funtzionamenduan eragin zuzena dute.

Testuinguru horretan, **babesleku klimatikoak** klima-aldaketara **egokitzeko neurri gisa** finkatzen ari dira, bereziki hiri-eremuetan. Babesleku klimatikoak bero-boladen eta muturreko tenperaturen aurrean **herritarrei babes termikoa eskaintzen** dieten espazioak dira, bai kanpoaldekoak (parkeak, lorategiak, itzaldun plazak) bai barrualdekoak (eraikin publikoak zein erabilera pribatukoak). Neurri hauek bereziki garrantzitsuak dira **kolektibo zaugarrientzat**, hala nola adinekoentzat, haurrentzat, osasunaren arloko -arazoak dituzten pertsonentzat edo baliabide gutxiago dituztenentzat.

Durangoko Udalak babesleku klimatikoen proiektua bultzatzea klima-aldaketaren aurrean egokitzapenerako estrategiaren barruan kokatzen da, hiriaren **erresilientzia indartzeko** eta herritarren **osasuna** eta **bizi-kalitatea** babesteko helburuarekin.

2.- TESTUINGURUA

2.1.- Maila anitzeko ikuspegia

Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Taldeak (IPCC) argitaratutako azken txostenek baieztatzen dute lur planeta berotzen ari dela modu azkarrean, eta berotze hori jarduera antropogenikoek eragindakoa dela nagusiki. Bero-boladen iraupena, maiztasuna eta intentsitatea handitzen ari dira eskualde askotan, eta hiri-eremuak bereziki zaugarriak dira **bero-uhartearen efektua** dela eta. Testuinguru honetan, egokitzapen-neurriak ezinbestekoak dira klima-aldaketaren ondorio kaltegarriak arintzeko.

Europar Batasunak klima-alaketaren aurrean jarduteko esparru estrategiko sendoa garatu du, Europako Itun Berdea (European Green Deal) eta Klima Egokitzapenerako EBren Estrategiaren bidez. Estrategia horiek azpimarratzen dute **tokiko administrazioen zeregina funtsezkoa dela egokitzapen--neurriak ezartzeko**. Bero-boladen aurrean babes-espazio seguruak sortzea eta identifikatzea gomendatutako jardueren artean dago, osasun publikoa babesteko eta gizarte mailako desberdinkeriak murrizteko helburuarekin.



Espainiako Estatuan, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legeak (7/2021 Legea) klima-alaketara egokitzeko politikak garatzeko beharra aitortzen du, eta administrazio publiko guztiei egokitzapen-irizpideak beren plangintza-tresnetan txertatzeko betebeharra ezartzen die. Halaber, Klima Aldaketara Egokitzeko Estatuko Planak (PNACC) bero-boladen aurrean jarduteko neurriak jasotzen ditu, hiri-inguruneetako espazio publikoen egokitzapena eta herritarrentzako babes-guneen sorrera barne.

Euskal Autonomia Erkidegoak klima-alaketaren aurrean jarduteko esparru propioa du, **Klima 2050 – Euskadiko Klima Aldaketaren Estrategiaren** bidez. Estrategia honek egokitzapena eta arintzea ardatz nagusitzat hartzen ditu, eta hiri-inguruneetan klima-arriskuen kudeaketa hobetzea lehenesten du. Era berean, Euskadiko Klima Aldaketari buruzko Legeak (1/2024 Legea) tokiko administrazioei egokitzapen-neurriak garatzeko eta herritarren osasuna babesteko betebeharrak esleitzen dizkie, bero-boladen aurkako neurri espezifikoak barne.

Bizkaiko Foru Aldundiak klima-alaketaren aurkako borroka eta egokitzapena politika publikoen ardatz estrategikotzat hartu ditu. Horren adibide dira klima-alaketaren behatokiak, udalerri zuzendutako laguntza-programak eta tokiko egokitzapen-ekintzak sustatzeko ekimenak. Testuinguru honetan, Durangoko babesleku klimatikoaren proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen ildoarekin bat dator, tokiko mailan klima-alaketara egokitzeko neurri praktikoak ezarri eta udalerrien erresilientzia indartuz.

2.2.- Durangoko Klima eta Energiaren Tokiko Plana

Durangoko Udalak, klima-alaketaren eta energiaren arloan duen konpromisoa agerian utziz, **Durangoko Klima eta Energiaren Tokiko Plana** garatu eta onartu zuen 2023ko ekainean. Plan horren baitan, udalerriko diagnostikoa burutu zen klima aldaketa arintzeari eta egokitzeari dagozkion esparruetan: batetik, udalaren eraikin, instalazio, flota eta argiteria publikoaren zein udalerriko sektoreen energia kontsumo eta Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isuriak aztertu ziren; Eta bestetik, arrisku eta **zaurgarritasun klimatikoaren diagnosa** burutu zen.



Durangoko babesleku klimatikoaren proiektu honi dagokionez, diagnostikoaren bigarren atalean jasotako informazioa da esanguratsu eta baliagarri dena, klima-aldaketara egokitzeari erreferentzia egiten diona. Bertan **Durangoko udalerrian bero-boladek giza osasunean izan dezaketen eragina** neurtzen da eta inpaktu-kate honekiko udalerriak duen zaurgarritasuna “ertaina” aipatzen da. Hala ere, inpaktu kate honen **arriskua**ren dezila 8koa da eta horrek esan nahi du, EAEko gainontzeko udalerrien % 80 egoera hobean daudela inpaktu-kate honi dagokionez eta beraz, inpaktu garrantzitsua dela.

Diagnostikoak azpimarratzen du, era berean, udalerriko eremu desberdinetan bero-boladen eragina ezberdina dela, itzalik ez duten eta eguzkiak zuzenean ematen duen eremuetan areagotu egiten baita. Gainera, lanak aipatzen duenez, **Durangoko hiri-esparruan berdeguneen banaketa 8m²/biztanlekoa da, Osasunaren Munduko Erakundeak ezartzen duen mailatik behera kokatuz.**



Ekintza planak **21 ildo estrategikotan banatutako 60 ekintza** jasotzen ditu (egokitzapeneko 38 eta arintzeko 22). Durango babesleku klimatikoaren sarearen proiektua bigarren ildo estrategikoan kokatuko litzateke, nahiz eta ez den ekintza zehatz moduan jasotzen.


SEKTOREA	Eremu Publikoa
ILDO ESTRATEGIKOA	Azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako irtenbideak sustatzea, hiri-ingurunearen erresilientzia eta herritarren osasuna hobetzeko mekanismo gisa
ARLOA	Egokitzapena

Durangoko Udala, gainera, **Alkateen Itunera atxikitu da 2025ean** klima aldaketaren aurkako konpromisoa indartuz. Udalaren ekimen hau, beraz, klima-aldaketara- egokitzeko estrategia integral baten barruan kokatzen da, herritarren ongizatea, osasuna eta berdintasuna ardatz nagusitzat hartuta.

2.3.- Tenperaturarekin erlazionatutako klima aldagaien proiektzioak Durangon

Ihobek eskaintzen duen “klima agertokiaren bisorea” erabiliz, [klima-aldagai garrantzitsuenen etorkizunerako proiektzioa](#) egin ahal izan da. Ondorengo grafikoak proiektzio horiek erakusten dituzte:





Aurreko grafikoetan ikusi daitekeen moduan, **tenperaturarekin erlazionatutako aldagaiek bilakaera kezkagarria** izango lukete mende amaierara begira eta agertoki okerrean kontuan hartuz (neurri eraginkorrik hartu ezean agertuko litzakeena). **Batez besteko tenperatura**ri dagokionez, mende amaierarako 3,5 °C inguru igotzea aurreikusi liteke; Eguneko **tenperatura maximoa 35 °C baino handiagoa** izango duten egunek ere nabarmen egingo lukete gora, 2011an baino ia 10 aldiz gehiago izatera iritsiz eta **gau tropikal**en kasuan ere (gaueko tenperatura 20 °C baino handiagoa diren egunak) egoera kezkagarria litzateke, urtean 72 egunetan gertatu ahal izango litzatekeelako fenomeno hori.

Aldagai hauen proiektzioak argi uzten dute Durangon ere klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko neurriak hartzea ezinbestekoa dela, klima aldaketaren efektua murrizteaz gain, udalerria egoera berrietara egokitzeko eta erresiliente egiteko.

2.4.- Durangoko emergentzia planean txertatu beharreko aldagaia

Durangoko Emergentzia Plana 2025eko otsailaren 26ko Udalbatzaren Osoko Bilkuran onartu zen eta 2025eko uztailaren 3an homologatu zen Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen bileran.

Emergentzia planean, beste batzuen artean Durango gerta daitezkeen hainbat klima arriskua zehazten dira; ala nola uholde-arriskua, basoetako sute-arriskua, eta emergentzia deklaritzen denean martxan jarri beharreko jarduerak zehazten dira.

Horietaz gain, klimaren eraginez gerta daitezkeen intzidentziei aurre egiteko herritarren autobabeserako neurriak jasotzen dira: tenperatura altuak, izozteak eta tenperatura baxuak, haize-bolada handiak, ekaitzak, euri-zaparrada handiak, elurteak eta basoetako suteak.

Ez-ohiko tenperatura altuko egoeratan, babesleku klimatikoak aktibatzea neurri horiek indartzeko ezinbestekoa da, eta horregatik babesleku klimatikoak ondo

zehaztu eta bere kudeaketa zehaztu behar da emergentzia planeko herritarren autobabeserako neurrien barruan.

2.5.- Babesleku klimatikoen nondik norakoak

Durango babesleku klimatikoak ez dira ezinbestez hutsetik sortutako espazioak, bero-bolada garaian konfort termikoa bermatzeko egokitutako lekuen sarea baizik. Bi kategoria nagusitan banatzen dira:

- **Barruko babeslekuak:** Tenperatura **26°C-tik behera** egotea bermatuko den eraikin publiko (liburutegiak, gizarte-etxeak, kiroldegia) zein pribatuak (elizak, museo pribatuak eta bestelakoak).
- **Kanpoko babeslekuak:** Naturguneak edo hiriguneak, inguruko kaleetan baino tenperatura baxuagoa dutenak; hori lortzeko, zuhaitzak, ur-laminak edota itzala ematen duten egitura natural zein artifizialak izango dituzte. Eredu hauek **itzaltsuak** izango dira eta **aireztapen naturala** izango dute.

Babesleku klimatikoak herritar gehien bizi diren eremuetatik gertu kokatu ohi dira. Herritarrek erraz identifikatu ditzaten, **seinaleztatuta egongo dira**. Gainera, babeslekuek **irisgarritasun baldintzak** bermatuko dituzte, sarrera **doakoa** izango da beti eta **oinarrizko zerbitzuak** eskainiko dituzte: edateko ura, komunak, atsedeen hartzeko tokiak, etab. Horrekin batera, espazio hauek **atsedenlekua eskainiko dituzte** hiri-altzarien edo eserleku erosoaren bitartez, kolektibo kalteberak indarrak berreskuratzeko aukera izan dezaten.

Espazio horien erabilerari dagokionez, beren etxeetan klimatizaziorik ez duten edo intsolazio handieneko orduetan bide publikoan dauden pertsonak izango dute lehentasuna. Bereziki **65 urtetik gorakoak**, **haurrak** eta **haurdun dauden emakumeak**, **gaixotasun kronikoak** dituzten pertsonak (gaixotasun kardiobaskularrak edo arnasketakoak) eta kalean jarduerak egiten dituzten **langileak eta kirolariak**.

Aurretik aipatutako seinaleztapenaz gain, herritarrek babesleku klimatikoen kokapena adierazten duen **mapa** bat izango dute eskuragarri Durango Udalaren webgune honetan. Bertan, espazio horien ordutegiak eta dituzten ekipamenduak ere zehaztuko dira.